

Idi bihurtuta ni
ziria sartuta
bultzaka nabil baina
zeharo galduta.
Probalekua hutsik
ez dau girotuta.
Aurrera egingo nuke
inork lagunduta.

- Laguntza behar duzu, orduan? - Aho zabalik, Jainua esku-orritik irteten ikusi nuen. Beso gihartsua lepoaren gainetik pasatu eta bere bularraren kontra estutu ninduen, bizar txirikordatuak kili-kili egin zidan aurpegian.
- Lasai gizona neuk lagunduko dizut eta! Ez zaitez larritu, idaztearena ez da batere erraza. Bidea urratu eta desegin behar da behin baino gehiagotan, baina oinez hasi behar da inora heltzekotan.
- Baina... eskarmenturik baduzu saltsa hauetan? - galdetu nion harrituta.
- Historian zehar hainbat idazle ezagutu dut, eta ni neu inspirazio iturri izan naiz eurentako askorentzat! "Mila gau eta bat gehiago" esate baterako.

"Mila gau eta bat gehiago"-ren aipamenak Aitite Ramón ekarri zidan gogora. Bere apaltasunean gizon handia. Inork baino hobeto zekien umeen arreta erakartzen. Nahiz eta ikasia ez izan, istorioak ederto baten biribiltzen zituen. Eta ikasi askok nahiko zuten naturari buruzko ezagutza zuen.



Oroitzapen gozoa da aitite-amamaren etxean geratzen ginenekoa. Añal ostean aititeren ohean sartu, eta "Mila gau eta bat gehiago" ipuin sortako istorio liluragarriak kontatzen zizkigun kontaketa-epeltasunean lokartzen ginen arte.

Gazte egin ginenean gerra garaiko pasadizo harrigarriak hartu zuten lekukoa; gudarien mobilizazioa, Gasteizko frontea, Nafarraten preso hartu zutenekoa...